



TicketBAI

ulertzeko gida

Euskal Autonomia Erkidegoko autonomia edo enpresa bazara, TicketBAI sistemarekin bat egin beharko duzu, **2022tik aurrera Araban eta Gipuzkoan, eta 2024tik aurrera Bizkaian.**



Aurkibidea

- 01** Zer da TicketBAI eta nori eragiten dio?
- 02** TicketBAI Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban
- 03** Nola egokitu zure negozioa TicketBAIra
- 04** Maiz egiten diren galderak






01

**Zer da TicketBAI eta
nori eragiten dio?**

Zer da TicketBAI?

TicketBAIren bidez, enpresek haien fakturazioa Foru Ogasunarekin zuzenean konektatuta izango dute. Horretarako, hainbat baldintzak bete beharko dituzte:

Enpresek fakturatzeko erabiliko duten softwareak homologatua eta ziurtatua egon behar du, gero euskal administraziora bidaliko den informazioa sortzeko.



Nork ezarri behar du TicketBAI sistema?

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foru Ogasunen araudiaren mende dauden enpresa eta autonomo guztiek.

Enpresa eta autonomo horiek TicketBAI araudira egokitutako fakturazio-software bat ezarri beharko dute. Hartara, faktura bat igortzen dutenean, kopia bat euskal ogasunera bidaliko dute automatikoki.

Igorritako fakturak legezkoak izan daitezen, ondoko baldintzak bete behar dira:

- ✓ XML fitxategi bat sortzea eta ogasunari bidaltzea.
- ✓ Baliozko ziurtagiri batekin digitalki sinatuta egotea.
- ✓ PDFak TBAI kodea eta QR kodea izatea.
- ✓ Fakturak, gainera, hainbat foru-agindutan zehaztutako arau batzuk bete behar ditu; honako hau, esaterako: BEZik gabeko kontzeptu bat adieraztean, salbuespenaren arrazoia adierazi behar da fakturan bertan.



Zein dira TicketBAI sistemaren zuzentzarauak?

Ikus dezagun nola sortu behar den TicketBAI sistemarekin sortutako faktura baten irudia:

1. Fakturek formatu digitalean edo PDF formatuan egon behar dute, inprimatu edo bezeroari bidali ahal izateko.
2. Aplikatu den BEZa agertu behar da fakturan.
3. Fakturatzeko erabili den programak TBAI identifikatzailea eta QR TBAI kodea barne hartu behar ditu.
4. QR kode horrek 30x30 mm eta 40x40 mm bitartekoa izan behar du, eta identifikatzailea zenbakiz eta letraz osatuta egon behar da, bai eta ikusgai egon ere.
5. Orientazio bertikala erabiliz gero, fakturaren beheko aldean kokatuko dira. Aitzitik, orientazioa horizontala bada, fakturaren eskuinaldean egongo dira: TBAI identifikatzailea lerro bakarrean doa, QR TBAI kodearen azpian.

FORMATU HORIZONTALA

TBAI-00000000000089y-3cab226-9d



FORMATU BERTIKALA

TBAI-00000000000089y-3cab226-9d



ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITU TICKETBAI SOFTWAREAK?

TicketBAI sistema elektronikoak ondoko baldintzak bete behar ditu:

- ✓ Zerbitzu edo produktu bakoitzeko faktura sortzea.
- ✓ Faktura bakoitza aurrekoarekin lotzea.
- ✓ Sinadura digitalak egitea.
- ✓ QR eta TBAI kodeak barne hartzea.
- ✓ Fakturaren XML fitxategia Foru Ogasunera bidaltzea.
- ✓ TicketBAI sistemarako erabili den softwarea ziurtagiri bidez bermatzea.

Isunak TicketBAI araua ez betetzeagatik


Enpresek edo autonomoek TicketBAI sistema erabiltzen ez badute, isunak ezarriko zaizkie. Arau-haustearen mailaren eta enpresaren tamainaren arabera izango dira:

Enpresek edo autonomoek araua hausten badute, aurreko ekitaldiko fakturazioaren % 20ko isuna ezarriko da, gutxienez 20.000 eurokoa. Arauak berriro hautsiz gero, isuna aurreko ekitaldiko fakturazioaren % 30ekoa izango da, gutxienez 30.000 eurokoa.

Halaber, dokumentazioa aldatzeagatik, suntsitzeagatik edo ezabatzeagatik ere zigorrak ezarriko dira, hala zerbitzuaren azken bezeroei (autonomoei eta enpresei) nola TicketBAI zerbitzuaren enpresa hornitzaileei. Kasu horietan, isunak aurreko ekitaldiko fakturazioaren % 20koak izango dira, eta gutxienerako isuna, 40.000 eurokoa. Arauak berriro hautsiz gero, isuna aurreko ekitaldiko fakturazioaren %30ekoa izango da, eta gutxienerako isuna, 60.000 eurokoa.

Gertakari puntuala bada, isuna 2.000 eurokoa izango da legez kanpoko transakzio bakoitzeko.

Arau-haustea aldizkakoa dela joko da emandako ondasunak eta zerbitzuak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa eta trazabilitatea bermatzen duen sistema informatikorik erabili ez den eragiketen zenbatekoak ez duenean gainditzen arau-hustea gertatu den likidazio-aldiko negozio-bolumenaren % 2.



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

 **Bizkaia**
batuz

araba  **álava**
foru aldundia diputación foral

02

**TicketBAI Bizkaian,
Gipuzkoan eta Araban**



TicketBAI Bizkaia

BORONDATEZKO DATA

2020ko urriaren 1etik aurrera

BORONDATEZKO DATA PIZGARRIAREKIN

2022ko urtarrilaren 1etik
2023ko abenduaren 31ra arte

NAHITAEZKO DATA

2024ko urtarrilaren 1a

TicketBAI Gipuzkoa

BORONDATEZKO DATA

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera

NAHITAEZKO DATA

2022ko urtarrilaren 1a

TicketBAI Araba

EGOKITZAPEN-ALDI EZ-OFIZIALA

2021ean zehar

BORONDATEZKO DATA

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera

NAHITAEZKO DATA

2022ko apirilaren 1a



TicketBAI

Bizkaiko kasua: Batuz eta EEEL

Batuz sistema Bizkaiko Foru Aldundiak ezarri duen eredu berria da. Zerga-ordainketa kontrolatzeko estrategia bat da, eta Bizkaiko enpresei eta autonomoei soilik eragiten die.

Batuz proiektuak TicketBAI sistema eta Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuen (EEEL) aurkezpen telematikoa barne hartzen ditu. Gainera, Foru Ogasunak zerga-aitorpen batzuen zirriborroak prestatuko ditu, autonomoari edo enpresari igorriko dizkionak, bidali aurretik onar edo baieztatu ditzan.

Batuz-en nahitaezko ezarpena 2024ra arte atzeratu da, baina pizgarriaren borondatezko epe bat ireki da. 2022 eta 2023 urteetako hiruhileko naturalekin bat datozen 8 leihuetan atxiki ahal izango da sistemara.

Atxikipena 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten bada, konpentsazioa % 15ekoa izango da, eta ehuneko hori murriztuz joango da sisteman sartzeko leihok igaro ahala. Konpentsazioaren ehuneko urteko etekinari edo urte bakoitzeko zerga-oinarriari aplikatuko zaio.

Batuz sistema ezartzeak % 30erainoko kenkariak izango ditu autonomoen PFEZren kuotan eta Sozietateen gaineko zergan, baldin eta inbertsioak eta gastuak ekipoekin, terminalekin, softwareekin, periferikoekin eta sinadura elektronikoko irtenbideekin lotutakoak badira.



Gipuzkoako kasua: ezarpen mailakatua

Gipuzkoako TicketBAI proiektua **2022tik aurrera ezarri beharko da nahitaez, eta era mailakatuan egingo da sektore bakoitzean**. Beraz, horrela jokatu dugu:

- 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera: Zerga-kudeatzaile profesionalak.
- 2022ko martxoaren 1etik aurrera: Jarduera profesionalak.
- 2022ko maiatzaren 1etik aurrera: Txikizkako merkataritza, ostalaritza eta ostatu-sektorea.
- 2022ko urriaren 1etik aurrera: Eraikuntza, higiezinaren sustapena, garraioa eta aisialdi kultural eta pertsonaleko zerbitzuak.
- 2022ko abenduaren 1etik aurrera: Fabrikazioa, handizkako merkataritza, telekomunikazioak, finantza-jarduerak eta artistak.

Fakturazio-programa zehatz bat erabiliko da, fakturak Foru Ogasunera zuzenean bidaliko dituenak. Gipuzkoaren kasuan, Ogasunak FakturaBAI jarri du gure esku.

Gipuzkoan, TicketBAI sistema ezartzeak % **60rainoko kenkariak izango ditu autonomoen PFEZren kuotan eta Sozietateen gaineko zergan**, baldin eta inbertsioak eta gastuak ekipoekin, terminalekin, softwareekin, periferikoekin eta sinadura elektronikoko irtenbideekin lotutakoak badira.



Arabako kasua: 13/2021 foru-araua, apirilaren 21ekoa

Arabako TicketBAI sistema pixkanaka ezarriko da 2022an, eta xehetasunak ALHAOn jasota daude, apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauan.

Ezarpenean laguntzeko, sistemara egokitzeko egin behar diren inbertsioak sustatzeko zerga-onurak jasoko dira araudian.

Nahitaezko ezarpena 2022ko apiriletik aurrera izango da, eta gauden epigrafea berrikusi beharko dugu, noiz hasi behar dugun ikusteko.

Hiru aldiak honako hauek dira:

- **2022ko apirilaren 1etik aurrera:** Arabako Foru Aldundiaren aholkularitza laguntzaileak.
- **2022ko uztailaren 1etik aurrera:** sendagaien, osasun-produktuen eta higiene pertsonalaren txikizkako merkataritza eta lanbide-jarduerak.
- **2022ko urriaren 1etik aurrera:** gainerako zergadunak

Arabako TicketBAI ezartzeak % 30erainoko kenkariak izango ditu PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren kuotan. Kenkari hori % 60ra igoko da TicketBAIn sartzen bagara gure sektorearen nahitaezko aldia baino hilabete lehenago.



03

Negozia nola
egokitu TicketBAIra

Nola egokitu zure enpresa TicketBALra

Zure negozioa TicketBALra egokitzeko, goian aipatutako eskakizun guztiak betetzen dituen fakturazio-software bat erabili behar duzu.

Halaber, gogoan izan fakturazio-softwareak TBAIra egokituta egon behar duela, fakturazio-gailu guztietan (tabletak, salmenta makinak, ordenagailuak) instalatu dezakezun ziurtagiri digitala, fakturak modu elektronikoa sinatzea ahalbidetuko dizuna. Gainera, Internetarako konexioa izan beharko duzu, XML fitxategiak elektronikoki bidaliko baitira Foru Ogasunera.

Zure negozioa digitalizatzeko aukera

Orain arte Excel programa edo zure ordenagailuan instalatutako beste doako programaren bat erabiltzen bazenuen, une aparta da online fakturazio-software bat kontratatzeke, autonomoentzat eta ETEentzat bereziki sortutakoa eta, Billinen kasuan bezala, TicketBALra erabat egokituta dagoena.

Beste irtenbide batzuen aldean Billinek eskaintzen dituen onuretako bat da ez duzula zure ziurtagiri digitala erabili beharko faktura bat sinatu nahi duzun bakoitzean. Billinek zure izenean sinatuko du, softwareak aukera hori ematen duelako.





04

Maiz egiten
diren galderak

Estatuko gainerako eskualdeetan ere aplikatuko da TicketBAI sistema?

Sistema honen xedea lurralde nazional osoan aplikatzea da, enpresen eta autonomoen fakturazioaren kontrol handiagoa izateko.

TicketBAI sistemarekin aurkeztu behar ditudan zergak aldatuko dira?

Aurkeztu beharko dituzun zergak ez dira aldatuko, haiek jakinarazteko modua baizik, enpresaren eta Ogasunaren arteko komunikazioa hobetze aldera.

Nola kontrolatzen da TicketBAI sistemaren aplikazioa?

TicketBAI sistemaren kontrola enpresei egindako ikuskaritza zuzenen bitartez edo tiketak, behar bezala, bezeroei ematen zaiela egiaztatuz egingo da.

Zein dira TicketBAI sistemaren arabera fakturatzeko softwareak?

Ogasunek onartu beharko dituzte TicketBAIrekin bateragarriak diren softwareak, eta horretarako, ziurtatuta egon beharko dute. Ez da nahikoa izango fakturak TBAI sistemaren arabera jaulkitzeko aukera izatea. Billinen softwareak Euskal Foru Ogasunaren ziurtapena du dagoeneko.



Ba al dago laguntzarik TicketBAI sistema ezartzeko?

Bai, bi laguntza mota ditugu. Alde batetik, % 30eko kenkaria ekipamenduen edo softwarearen erosketan Bizkaian eta Araban, eta % 60koa Gipuzkoan. Murrizketa hori **PFEZn edo SZn** aplikatuko da.

2022an eta 2023an, gainera, pizgarridun epe bat izango dugu Bizkaian, eta sistema hasieratik erabiltzen hasten bagara, % 15erainoko kenkaria aplikatuko digute gure zerga-oinarrian.



Billzin

www.ticketbaikutxabank.eus/eu